

CC.OOek Jakinarazten du CC.OOek jakinarazten du CC.OOek
jakinarazten du CC.OOek jakinarazten du CC.OOek jakinarazten du

KANPOKO PROBAK ETA EBALUZAIO DIAGNOSTIKOAK

1. MOBILIZAZIOAK

a. Proba hauen deialdia dela eta, zenbait autonomia elkartetan, CCOOek mobilizaziorako dei egiten ari da, berez, ez kanpoko proba hauen aurka dagoelako, baizik eta daten, ikastetxeen, proben errepikapenen, kostuen, antolaketa eta kudeaketen, aplikatzaileen, zuzentzaileen, ondorioen eta abarren egungo baldintzetan ezartzearen aurka.

b. Mobilizazioek eragiten dituzten deialdiak, DBHko 4. mailaren bukaerako Ebaluazio Probak dira eta Lehen Hezkuntzako 3. eta 6. mailakoak eta, oro har, LOMCEn ezarritakoak, nahiz eta 5/2016ko Lege Errege Dekretuak indargabetu dituen, muestralak bihurtuz eta ondorio akademikorik gabe. Dena den, hezkuntza administrazioak araudi-nahasketa giro batean mantentzen ari dira eta LOMCE ekartzen ari den ondorio negatiboak kontuan izan gabe, guztiz nabariak emaitza akademikoak ikusita.

c. Aipatu mobilizazioa hezkuntza elkartearen erakunde ordezkagarrienen gehiengoaren babesarekin du: CEAPA, Ikasleen sindikatua, CCOO eta UGT, probak ezartzen diren garapen eredia gaitzesteko eta horien diseinuan eta planteamenduan hezkuntza elkarteak baztertzen delako.

d. Orokor bihurtu daitezkeen eredu nahi izan gabe, Madrilgo institutuen ikasleek etengabe galdetzen dute aipatu probetan parte hartzeko **derrigortasunari**¹ buruz. Elkarteak hitz hau darabil eta ikastetxeetako zuzendaritzari exijitzen dio, ikasleei eta beren familiei, egiazkotasunez, probaren (eta bere derrigorrezkotasunaren) berri ematea; absentismo tasa batezbestekoaren gainera bada, jarrera erabat hertsatzaileaz, ikuskaritzaren

CC.OOek Jakinarazten du CC.OOek jakinarazten du CC.OOek jakinarazten du CC.OOek jakinarazten du CC.OOek jakinarazten du

interbentzioa eskatzen du. (zenbait ikastetxetan %23 izan zen, hau da, lautatik batek ez zuen egin); emaitzetatik abiatuta, ikastetxeei hobekuntza plana eskatzen zaie, hurrengo Urteko Programazio Orokorrean txertatuko dena, bere edukiari baino egoteari garrantzia emanaz.

2. EBALUAZIOEN HELBURUAK

a. Ebaluazioan. zertarako den, zergatik ebaluatzen den, berarekin zein helburu lortu nahi dugun da funtsezkoena. Ezer baino lehen, gogoratu behar da, ebaluazioa ez dela hezkuntzaren epaile, bere zerbitzura dagoela baizik; hau da, hezkuntzaren xedeen zerbitzuan. Hezkuntzari esleitzen diogun helburuen arabera, horrela izango da ebaluazioari buruzko ikuskera. Egun defendatzen diren ebaluazio asko eta asko, diagnosi ukituz apainduta datozkigu baina, ebaluazio horiek, etengabe eta setakeriaz, erakusten dutena aipatu ebaluazioei bere izen onoz galarazi eta usteko diagnosi izaera ukatzen bukatu dute.

b. Ados gaude Konstituzioaren 27. artikularekin, hau da, hezkuntza zera dela: giza nortasunaren garapen osoa helburutzat hartzen duen eskubidea, bizikidetzaren printzipio demokratikoenganako eta eskubide eta funtsezko askatasunenganako begirunean. Honek etapa eta hezkuntza maila guztietarako balio du, Haur Hezkuntzatik Unibertsitateraino eta bizitzan zeharreko Ikaskuntzarako, Lanbide Hezkuntzatik edo Hezkuntza Berezitik pasata. Gainera, OCDEk (PISA) planteatutako ebaluazioan eta kutsu bereko besteetan, sumatzen den halako joera ekonomizista kritikatzeko zilegitzen digu. Gizarte testuinguruari egiten dioten deia badirudi hura emaitzekin elkartzera dagoela bakarrik bideratuta. CCOOen ustetan, ikastetxeak kokaturik dauden gizarte

CC.OOek Jakinarazten du CC.OOek jakinarazten du CC.OOek jakinarazten du CC.OOek jakinarazten du CC.OOek jakinarazten du

kontuan hartu behar da, baina ez dagoen gizarterako hezi behar dela ondorioztatzeko, baizik eta, behar den gizarterako, gizarteak berak eskatzen digunerako, hezkuntza, traumarik gabeko aldaketa palanka gisa begiztatzeko duena. Testuinguruak ez du balio emaitzekin erlazionatzeko bakarrik; ondo dagoena, noski, baizik eta baliabideak jarri eta irakaskuntzaren programazioan berariazko hezkuntza neurriak ezartzeko. Azken hau ez da gertatzen.

c. PISA, CDI bezalako probek, errebalida izenez ezagutzen direnak, (aurreko beste zenbait ordezkatzeko dituztenak) bere baitan xede bihurtzen bukatu dute, hezkuntzaren xedetarako lan egin ordez. Hiru urtean behin PISAren emaitzen zain gaude; udaberririko bezala, hezkuntza administrazioen hezkuntza emaitzei buruzko txostenak espero diren bezala: ikastetxeen berariazko proba akademikoetatik kanpoko probetara (USEb, zikloetara sartzeko probak, 20 urte baino gehiagoentzako Batxilergokoak, CDIkoak, errebalidak edo *azken ebaluazioak*, hizkuntz atzeritarretan gaitasunak bermatzekoak, etab...) Eta proba guzti hauetatik abiatuta, zer egin dute administrazioek? Oso gutxi edo ezerrez. Horixe da proba diagnostikoei bere izaera kentzen diena, bere baitan xede izaten bukatu eta garrantzitsuna zera izatea: herria, elkartea, era ezberdinetako ikastetxeen titulartasuna, nire ikastetxea zein lekutan geratzen den, hezkuntzaren helburuak hobetzeko jarduerak kontuan hartu ordez.

3. EGUNGO EBALUAZIOAK

a. Datozen bi hilabeteotan, Madrilgo Autonomia Elkarteko edozein institutu elebidun adibide gisa hartuta, egungo %50,7a, bertan kanpoko ebaluazioak burutzen ari dira:

CC.OOek Jakinarazten du CC.OOek jakinarazten du CC.OOek
jakinarazten du CC.OOek jakinarazten du CC.OOek jakinarazten du

- a.i. Ingeleseko gaitasunari buruzkoak, HEO (Hizkuntz Eskola Ofiziala) bateko irakasleek DBHko 2 mailako talde pare bati jarritakoak. Froga egun bakarrean egiten da.
- a.ii. DBHko 4. mailako errebalida edo *azken ebaluazioa*, Madrilgo Autonomia Elkartearen muestrala izan ordez, formatu ezberdinetan ikastetxe guztiei jartzen zaizkiena, bi egunetako iraupenez eta beste institututako irakasleek jarrita.
- a.iii. Ikastetxe elebidunetan, Cambrige probak DBHko 4. mailako ikasleen ingeles maila ebaluatzeko. Teorian, ikasle gehienak aurkezten dira, baina %30 kanpoan uzten da. Probak 2 eta 4 egun tarteko iraupena du, A2 eta B2 mailai dagozkien ahozko eta idatzizko modalitateetan.
- a.iv. PISA proba, lagin bezala aukeratuta izanagatik. Egun bateko iraupena du.
 - a.v. Hauei ikastetxean ematen diren beste batzuk erantsi behar zaizkie eta baita ikasleek bere kabuz aukeratzen dituztenak: LHko Zikloetarako Sarbide Probak. Eta, dagoeneko badoaz lau proba, USE, etab...
- b. Azken hauek izan ezik, -eta ez erabat- guztiak ezaugarri berbera dute, hots, ez irakasleek ezta hezkuntza elkartearen gainerakoek ere, berorietaz jakin ez eta berorietan parte hartze ez izana; zenbaitetan, planteamenduan zein prestaketan (4.mailako Azken Ebaluazioa) akatsak edukitzeagatik; kudeatze eta

CC.OOek Jakinarazten du CC.OOek jakinarazten du CC.OOek jakinarazten du CC.OOek jakinarazten du CC.OOek jakinarazten du

ezarpenean pribatizatuak izateagatik (funts publikoen desbideratze garrantzitsua ematen delarik).

- c. Probaren pribatizazioaz eta berorietan hezkuntza elkartearen esku hartzerik ezaz gainera, probek gogor eta negatiboki eragiten dute ikasturtearen antolamenduan, horren garrantzitsu eta erabakigarri den ikasturtearen une honetan, ikasleak estres pean jarri eta funtsezkoenetik aldentuta: ikaskuntza bera eta ebaluazio arrunta. Astebete bat baino gehiago erabiltzen ari da probetara bakarrik. Honek ebaluatutako ikasleei nekea dakarkie eta, esfortzuaren eta egokieraren justifikazio argirik ez badago, proben zentzugabekeriari laguntzen bukatzen du.

4. ZER ESKATZEN DIEGU EBALUAZIOEI?

- a. Ebaluazio hezigarri eta dignostikoaren alde gaude eta ez ditugu kanpokoei uko egiten baina, betiere, hezkuntzaren xedek lortu nahi eta errespetatu eta proposatutako bere funtzioa betetzen badute.
- b. Ikuspegi honek diagnostikotzat jotzen diren egungo ebaluazio gehienak salatzeraz behartzen gaitu.
- c. Ez litzateke oso zaila izango hezkuntza sisteman ematen diren arazo garrantzitsuenetan ados jartzea: DBH eta Lehen Hezkuntzako eskola porrota; abserntismo handia Oinarrizko LHan eta Erdi Mailan; curriculum erabat handituak

CC.OOek Jakinarazten du CC.OOek jakinarazten du CC.OOek jakinarazten du CC.OOek jakinarazten du CC.OOek jakinarazten du

eta akademizistak; aniztasunarenganako arreta urria, hezkuntza neurri sendoen gabezia, ikasturtea errepikatzeko gehiegikeriatik haratago; helburuak eta emaitzak lortzeko ekitate falta eta genero joera askotan; ikastetxeen arteko diferentzien nagusitasuna; hezkuntza baliabide urriak eta banaketa ez ekitatiboa; krisialdian gizarte- eta hezkuntz-ezberdintasuna handiagotzea aukera-berdintasunei eragiten diolarik, etab.

d. Beste proba askoren emaitzek arazo hauetako asko bermatzen dituzte. Esaterako, PISAri dagokionean, ikastetxean aukeratutako 15 urteko ikasleen multzotik errepikatzaileak kanpoan utziz gero, badakigu emaitzak oso onak izango liratekeela. Hezkuntza administrazioak eta HKKMa zein hautabide lantzen ari da errepikatzeari aurre egiteko? Ezertan ere ez, zenbait programetan izan ezik, Balentziako Elkartearen Errefortzua, esaterako. Eta horrela jarraitu ginateke aipatutako beste arazoekin. Diagnostiko nahiko garbi eta partekatua eta LOMCEren beste neurriren ondorio negatiboak agerian jartzen ari direnean, ebaluazioekin jarraitzeak ebaluazio diagnostikoa egoeraren konplize bihurtzen da eta ez hobekuntzaren tresna.

e. Azter dezagun **Lehen Hezkuntzako errepikapenen adibidea**. LOMCEk, neurrigabeko curriculum akademizistaren amaiera gisa (20.2 artikuluaen testu berria), **errepikatzeko neurria Lehen Hezkuntzako edozein ikasturtetan ezartzeko aukera** txertatu du. LOMCE indarrean jartzeak zera ekarri zuen: ikasmaialkako errepikatzea 2014-2015 ikasturtean eman ahal izatea, ikasturte hori izan baitzen Lehen Hezkuntzako 1go., 3. eta 5.ean aipatu legea indarrean jarri zena. Baina ikasmaila horietako errepikapenek gutxitu zezaketen 2., 4. eta 6.arenak hurrengo ikasturtean, 2015-2016an, hain zuzen ere, LOMCE legea ere ikasmaila horietan indarrean jarri baitzen. Ondorioa, 2015-2016an, errepikatzeko aukera gehiegi erabiltzea izan zen, **ikastalde**

CC.OOek Jakinarazten du CC.OOek jakinarazten du CC.OOek
jakinarazten du CC.OOek jakinarazten du CC.OOek jakinarazten du

guztietako protzentajeen batuketan areagotze handia, gainera. Errepikatzeko neurria 1go. ikasmilan ezarri ahal izanak ez du 2.ean bere erabilera gutxitu eta, horrela, 3.arekin, 4.arekin, 5.arekin eta 6.arekin, ondorioa errepikapenak areagotzea izanik.

Ikasturte guztietan errepikatzeko aukerak, neurri honen erabilera malguagoa bideratu ordez, (hori izan zitekeen bere justifikazio bakarra) **bere gehikuntza ekarri du**, EBaren osotasunean zegoeneko nabarmentzen ginen **neurri baten gehiegikeria**. Gainera, garestia, eraginik gabekoa (titulartasunaren arabera) eta ikasleen eta bere familien autoestimuari kalte egiten diona, hezkuntzarenganako eskubidea jardutea bermatzen hezkuntza sistemak duen erantzukizuna beraiei egotzita.

Aipatu behar da HLOak lortzen ari zela (erka dezagun 2009-2010 ikasturtea 2014-2015ekin, hots, krisialdi betean eta murrizketak gorabehera) neurri honen murrizketa garrantzitsua, LOMCEK, gero, hautsi duena. Eta 2008ko gai honi buruzko ikerketaren arabera, http://eacea.ec.europa.eu/education/eurydice/documents/thematic_reports/126ES.pdf, 39 eta 40² orrialdeak) **Espainia bazegoen Lehen Hezkuntzako errepikatze tasa gehiagorekin EBeko herrien talde txikian. Beraz, logikoena eta espero dena zera da: aipatu tasa murriztu eta ez gehiagotzeko neurriak.**

Antzekoa esan dezakegu DBHko errepikapenari buruz: 2006-2007tik 15 urtetako egokitasun tasa hobetu egin da (dagokion ikasmilan dagoen adin horretako pertsonen portzentajea); errepikatze tasak gutxitzeagatik gertatzen da hau, nahiz eta, oraindik, EBeko altuenetakoak izan (ikus 2. oharra, 57-60 orriak). Dena den, LOMCEren neurrien politikek, titulua lortzera eraman gabe IEHPk bezala, DBHko 4.ikasmilako ibilbideek, titulazio aniztasunak eta aukera ezberdinetarako bere binkulazioak (2106ko LRDak zapuztuta), ez diote beharrezko gutxitze horri laguntzen.

CC.OOek Jakinarazten du CC.OOek jakinarazten du CC.OOek
jakinarazten du CC.OOek jakinarazten du CC.OOek jakinarazten du

f. Hezkuntza administrazioek, ebaluazio diagnostikoak sinegarri egiteko, adierazitako arazoak azaltzen diren indikatzaileak gutxitzeko planak aurkeztu beharko lituzkete. Gehienek ez dute horrelakorik egiten. Aitzitik, ebaluazioa errepikatzeari setatsu eusten diote eta, horrela, gehienbat, kontrol modu bat izaten bukatzen du, balio bat berenez (ikasleek zer dakiten ez du axolarik, zein postutan geratu garen, baizik); ikastetxeen sailkapenak argitaratzen dituzte, ez emaitza asko ulertzeko laguntzen dituzten testuinguru faktoreak ezta egoera txarragoan egon baina, aldaketarako konpromiso eta alde aurretiko jarrera ona duten ikastetxeei esleitutako baliabideak ere. Adibidez, 15 urteko ikasleak adin horretako populazio osoa diren herrien (Espainiaren kasua, esaterako) PISAren emaitzak konparatzen dira eta adin horretako portzentaje bat besterik eskolatua dagoen herriena (%50, Vietnam, esaterako); honek, emaitza eta adierazten duena erabat desitxuratzen du.

g. Ebaluazioaren erabilera hau -diagnostikoatzat hartu nahi dena barne-ikastetxeetako menderatze eta kontrol tresna eta zenbait hezkuntza politiken legezkotzeko, ebaluazioak ugaltzean agertzen da. Ez eskuduntzak dituzten hezkuntza administrazioek sustatutako ebaluazioak bakarrik, baizik eta nazioarteko erakundeek ere. Horren adibide bikaina, PISA izaten ari da. Hiru gaitasunei (irakurketa, matematikak eta zientziak) eusten zion hiru urtean behin egiten zen proba batetik gaitasun gehiegotara pasa zen: finantzario, arazoak ebazteko, sormeneko, gaitasun orokorra; eta talde berrietara: PISA ikastetxeentzat eta, **laster, PISA hezkuntza baliabideetarako, PISA hezkuntza poliketetarako, etab...** Zertan daude hezkuntza gastuari buruzko azterketa ezagunak? Zein datu gehiago behar da estatu mailako programa solidario eta konpentsatzaileen bidez aritzeko? AAEEkin hitzartuak, ezagunak zaizkigun arazoak ebazteari ekiteko?

CC.OOek Jakinarazten du CC.OOek jakinarazten du CC.OOek jakinarazten du CC.OOek jakinarazten du CC.OOek jakinarazten du

h. Ebaluazioaren interpretatze honek bere benetazko xede hezigarri eta diagnostikoetatik urruntzen du. Horregatik, CCOOk, benetako ebaluazio baten alde, hezkuntza administrazioek eskaintzen dizkigutenekin oso kritikoa izango da eta, luzamendutan ibili gabe, egungo arazoak konpon ditzaketen neurriak ezartzea exijitzen du.

(1) *Hezkuntza Politika eta Zientzia eta Hezkuntza Antolamendurako Kontseilariordetzen, 2018ko otsailaren 2ko Ebazpenaren 8.1. art., 2107-2108ko ikasturte akademikorako Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako laugarren ikasmilako ikasleen azken ebaluazioari dagozkion probak burutzeko aginduak emateko (BOCM otsailaren 27). "Ikastetxeko zuzendaritzak, ikasleei zein familiei aurrekoak burutu behar dituzten proben helburua, garrantziaz eta ikasle guztientzako beharrezkotasunaz informatzeko ardura hartuko du. Ikastetxe batean ikasleen absentismoa %10 baino gehiago denean, dagozkion ikuskariak arazo horren zergatiei buruzko txostena egin eta dagozkien erantzukizunak hartuko ditu".*

(2) *Europar derrigorrezko hezkuntzan ikasmilako erreplikatzeko: araudia eta estatistikak, EACEA P9 Eurydice, HKKMak argitaratutakoa, Madril, 2011.*